



ITURRIBERO MENDIZALE TALDEAN IZENA EMATEKO

Gasteiz, 2011ko irailaren 12a

Kaixo lagunok:

Urtero bezala gutuntxo bat bidaltzen dizuegu ikasturte hasieran mendi-taldearen ekintzen berri emateko asmoz. Naturak umeentzat duen garrantzia kontutan izanda haur ugari apuntatzea espero dugu. Era berean, orain arte etorri direnek jarraituko dutelakoan gaude, ekintza hau igandean izanik ikastolan burutzen den beste edozein ekintzarekin batera eraman baitaiteke aurrera.

Aurten hogeita botz irtenaldi zein baino zein atseginago, prestatu ditugu, guztiontzat egokiak izango direlakoan.

- Irtenaldien salneurria **5 eurokoa** izango da, autobusa ordaintzeko.
- Idatzi honekin batera IZEN-EMATE TXARTELA duzue, nahi duzuen guztiok izena emateko. Txartela ikastolako mendi-gutunontzietan utzi behar duzue irailaren 23a baino lehen.
 - ◇ Ezinbestekoa da datu guztiak betetzea.²
 - ◇ Izen-emate kuotaren ordainketa-agiria ere bidali behar duzue.
Adinez txikiak diren guztiak kuota bat ordaindu behar dute ekintzan parte hartu ahal izateko. Kuota hori **12 eurokoa** da urte osorako.
- Haur Hezkuntzako ikasleek eta Lehen Hezkuntzako lehen mailakoek gurasoetako batek lagunduta joan behar dute. Ekintzan parte har dezakete ikasle ohiek, kanpoko ikasleek, haien gurasoek...
- Izena ematen dutenek arlo ezberdinei buruzko informazioa jasoko dute: irtenaldiak, arduradunak...
- Bi autobus geltoki daude, **bata, goizeko bederatzia hogeitaz gero gutxiagoetan Duke Wellington kaleatik (San Prudentzio ikastetxearen aurrean), eta bestea, goizeko bederatzietan Santa Barbara plazatik (El Corte Inglesen atzean).**
- Lehendabiziko bi irtenaldiak izango dira: irailaren 25an Peña Bargondiara eta urriaren 2an Batxikabora.
 - ◇ Irtenaldi horietan parte hartzeko irtenaldiaren aurreko osteguneko gaueko hamarrak baino lehen egin beharko duzue ordainketa eta agirian argi egon beharko dira ondoko orrialdeko txostentxoetan eskatzen diren datuak.
- Izen-emate kuota eta irtenaldiei dagokien salneurria ondoko kontuetako batean ordaindu ahal dituzue:

ITURRIBERO M.T. CAN..... 2054 2085 91 9155785908

ITURRIBERO M.T. CAJA VITAL KUTXA..... 2097 0150 93 0104989883

- Informazio gehiago aurki dezakezue honako web orrian: **www.iturribero.org**
- Zalantzen bat izanez gero klubeko presidenteari, Leonardo Trejo, ondoko telefonoetara jo dezakezue:
 - ◇ 619 820 581 - 945 258 526

Besterik gabe, agur.

Junta

Oharra: Familia berriek eta iaz eman ez zutenek familia liburuaren fotokopia (umeari dagokion orrialdearena) eman behar dute.

² Datu horiek taldearen antolaketakarako eta aseguratutako beharrezkoak direlako eskatzen dizkizuegu.

Posta elektronikoa oso lagungarria da hartu-emanak arintzeko.

Jasotzen ditugun datuak Mendi Taldean baino ez dira erabiliko. Horrez gain, jardueran parte hartzeari uzten diozuen datu horiek gure datu basetik ezabatzea nahi izanez gero, ezabatu egingo ditugu.